



SEKTOREA: NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA

AGINDUA, 2020ko apirilaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldi baterako eteten baitira nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagai eta produktuen zuzeneko salmentako aisialdiko edo jai giroko merkatu eta azoka tradizionalak, ezartzen baitira nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagai eta produktuen zuzeneko salmentako merkatu eta azoka tradizionalen (normalean, asterokoak) baldintza sanitarioak eta arautzen baita EAEko zenbait udalerritan denda-ibilgailuak baliatuz saltoki ibiltariak gauzatzen duten jarduera, SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak sortutako pandemia dela eta

Joan den apirilaren 6an, Agindua eman zen (2020ko apirilaren 8ko 69. EHAAn argitaratua) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan egiten diren nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagai eta produktuen zuzeneko salmentako merkatu eta azoka tradizionalak aldi baterako eteteke.

Apirilaren 6ko Aginduan adierazten da Covid-19 birusak eragindako krisialdi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera ezarri zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikulua (martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatu zuen; baita martxoaren 27ko 476/2020 Errege Dekretuak ere, zeinak luzatu egin baitzuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezarritako alarma-egoera, eta luzatu zuen apirilaren 10eko 487/2020 Errege Dekretuak 2020ko apirilaren 26ko 00:00ak arte) baimena ematen du erabilera publikoko bideetan zirkulatzeko, elikagaiak erosteko bada, pertsonen zirkulazio-askatasunaren murrizketa ezartzen duen testuinguruan, betiere.

2020ko apirilaren 14ko Agindu berriak 2020ko apirilaren 6koa ordeztzen du eta erabaki du:

- Mantentzea Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan egiten diren nekazaritzako eta abeltzaintzako elikagai eta produktuen zuzeneko salmentako aisialdiko edo jai giroko merkatu eta azoka tradizionalen aldi baterako etena
 - Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen zuzeneko salmentako merkatu eta azoka tradizionalen (normalean, asterokoak) baldintza sanitarioak ezartzen dira
- a) Postuei dagokienez: pasabide batek banatu beharko ditu postuak, eta 6 metro egon beharko da postutik postura. Lau metroko gutxieneko banaketa baimentzen da aldean artean.
- b) Erabiltzaileei dagokienez: joateko baimena izango dute etxebizitza gertu duten pertsonak edo beste arrazoi batzuegatik presentzia behar bezala justifikatu



dezaketenek. Kasu guztietan, beraien artean bi metroko distantzia utzi beharko dute gutxienez

- c) Garbiketari eta bilketari dagokienez: merkatuak sortutako hondakinak poltsetan utzi beharko dira, garbiketako eta zaborra biltzeko udal-zerbitzuek horretarako jarritako edukiontzien barruan, eta, nolahi ere, udal-ordenantzetan edo -bandoetan ezartzen diren zehaztapenak bete beharko dira.
- Denda-ibilgailu bidezko salmenta ibiltariari dagokionez, indarrean dagoen araudiari jarraituz jarduera honi aplikatu beharreko araudi higieniko-sanitarioa betetzeaz gain, prebentzio-neurri hauek hartu beharko dira:
 - a) Elikagaien eta premiazko produktuen salmenta ibiltaria 08:00etatik 15:00etara bitartean egingo da.
 - b) Elikagaien eta produktuen banaketarako ibilgailuan, pertsona bakarra joango da, eta eskularruak, maskara eta gel desinfektatzailea izan beharko ditu.
 - c) Ahal dela, etxez etxeko salmenta egingo da, eta, ezinezkoa bada, bide publikoan jendea pilatzea saihestuko da eta, edozeinetara ere, kontsumitzaileen artean eta kontsumitzaileen eta saltzailearen artean gutxienez metro eta erdiko segurtasun-distantzia gordeko da.
 - d) Salmenta ibiltaria egiten duten ibilgailuek behar-beharrezkoa den denbora baino ez dute emango salmenta egiten duten lekuan, hain zuzen ere kontsumitzaileek elikagaiak eta oinarritzko beharrezkoak lotutako produktuak erosteko behar dutena. Beharrezkoak ez diren atzerapenak saihestuko dira.
 - e) Salmenta ibiltarirako erabiltzen den ibilgailua garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak zorrotz beharko dira, eta egunero gauzatuko dira.

[Agindura sarbidea](#)